

---

## HERNANI. UDAL AURREKONTUAK 2017: Proposamenak lehenesteko saio irekiak

---

-2016-10-03. SAIOAREN AKTA-



---

### BILERAREN XEHETASUNAK/ DETALLES DE LA REUNIÓN:

- Landutako gaiak/ *Temas tratados*: Parkeak eta espazio publikoak, nerabeak eta gazteak / *Parques y espacios públicos, juventud y adolescencia*
- Data/ *Fecha*: 2016-10-03
- Lekua/ *Lugar*: Udaletxeke pleno aretoa
- Hasiera ordua/ *Hora de inicio*: 18:30
- Amaiera ordua/ *Hora de finalización*: 20:30

### DINAMIZAZIOA/ DINAMIZACIÓN:

- Parte hartzaile kopurua/ Número de participantes: 6 herritar, 2 emakume eta 4 gizon.
- Ordezkaritza politikoa: Luix Intxauspe (alkatea)
- Dinamizatzaileak/ Dinamizadores/as: Maitane Barrenetxea eta Arkaitz Martínez de Albeniz

## 1. ONGI ETORRIA ETA AURKEZPENA

Luix Intxauspe Alkateak saiora bertaratutakoei ongi etorria egin die. Erabaki Hernani Decide prozesuak azken fase erabakitzaileari ekin dio uda ondotik. Herritarren artean Udal Aurrekontuko 500.000€ eztabaidatu eta erabakiko dira.

Prozesu hau garatzeko Aztiker Soziologia Ikergunea ari da dinamizazio lanetan, beraiek dira prozesu honen metodologia prestatzeaz arduratu direnak.

Alkatearen aurkezpenaren ostean Maitane Barrenetxea Aztikerreko teknikariak gaurko saioaren nondik norakoak azaldu ditu:

1. **Aurkezpena eta prozesuaren errebasoa:** Alkateak eta Aztikerreko teknikariak prozesu osoaren errebaso labur bat egingo dute.
2. **Egindako proposamenen balorazioak** (Udal teknikariek eta ordezkari politikoei egin dituztenak) azalduko dira
3. **Proposamenak lehenesteko ariketa:** 500.000€ek ez dute proposamen guztiak egiteko aukera ematen, eta beraz, lehendabiziko "filtra" pasa beharko diegu proposamenei, gaur landuko ditugun erdiek aurrera egingo dute, eta beste erdiak prozesutik kanpo geratuko dira.
4. **Hurrengo urratsak eta balorazioa:** bilera ireki honen ondoren geratzen diren urratsak azalduko ditugu, eta gaurko saioaren balorazioa egingo dugu.

Prozesuarekin zerikusia duten beste hainbat datu azaldu dira Aholkularitzatik.

### NON GAUDE?

- Prozesuaren lehendabiziko fasean Udal **Aurrekonturako proposamenak** egin genituen, apirila

eta maiatza artean. Guztira hernaniarrek 667 proposamen egin zituzten.

- **2.fasea, Balorazioa:** 667 proposamen hauek hartu eta Udal ordezkari politikoei eta teknikariek baloratu egin dituzte. Uda osoa izan dute proposamen hauek denak baloratzeko.

- **3.fasea, Lehenetsi:** 500.000€ek ez dute hemen ateratako proposamen guztiak aurrera ateratzeko ematen, eta beraz, proposamenen artean aukeraketa bat egin behar da. Aukeraketa hau ez da norberaren nahien arabera egingo, Hernanik dituen beharren arabera baloratuko ditugu, eta horren arabera lehenetsunak ezarri.

- **4.fasea, hautaketa:** proposamenak lehenesten ditugunean, garrantzia handiena hartu duten 30 proposamenekin eskuorri bat egingo da, eta etxex etxe banatuko da, norberak etxean bere gustukoena aukeratu ditzan.




## 2. PROPOSAMENEN ERREPASOA

Proposamen gehienak baloratu egin dituzte Udalean, eta hauetako batzuk prozesutik kanpo geratu dira.

Proposamenak kanpo gelditzeko arrazoiak azaldu dira lehendabizi, eta ondoren, gaurko saiokoak diren eta kanpoan geratu diren proposamenak aurkeztu dira.

- ❖ **Jasotako proposamen batzuk ez dira Udalaren kompetentziakoak**, Eusko Jaurlaritzarenak, Gipuzkoako Foru Aldundiarenak, edota beste hainbat erakunderenak izan dira, hori dela eta ezin ditugu Udal Aurrekontuaren barnean txertatu
- ❖ **Udalaren eskumen edo kompetentzia direnek aurrera egin dute**. Proposamen hauen artean,
  - Dagoeneko aurtengo Aurrekontuan sartuta edo egitea **aurreikusita zeuden proposamenak** egon dira. Beraz, aurreikusiak zeudenak kanpo geratu dira.
  - **Aurtengo Aurrekontuan aurreikusi gabe zeuden proposamenek**, aurrera egin dute. Hala ere, aurrekontuan sartuta ez zeuden proposamenen artean,
    - Batzuk **kudeaketarekin zerikusia** dute, hau da, proposamen batzuek ez dute aurrekontu jakin bat behar, baizik eta dagoeneko egiten diren gauzetan aldaketak egitea eskatu da. Horrelako proposamenek aurrekonturik behar ez dutela baloratuta, prozesutik kanpo geratu dira.
    - **Teknikoki bideragarriak ez direnak eta 166.000€ak gainditzen dituztenak** ere kanpo geratu dira.
    - Beraz, **aurrera egin duten proposamenak aurrekontu zehatz bati lotutakoak** izan dira.



Aurtengo proposamenei dagokionean, datu orokor batzuk aurkeztu dira ondoren:

- ❖ Jasotako proposamen kopurua: **667**
- ❖ Prozesuan aurrera egin duten proposamenak: **225**
- ❖ Balorazio tekniko eta politikoetan kanpo: **442**
  - Aurrekontua gainditu: 48
  - Udalaren eskumena ez direnak:41
  - Balorazio politikoa: 1
  - Balorazio teknikoan: 78
    - Zehaztasun falta:6
  - Beste bide bat jarraituko dute: 49
    - Egin da: 28
    - Egingo da: 21
  - Ez dagokio prozesu honi: 7
    - Ezin da: 2
    - Kudeaketa: 108
    - Balorazio zain: 47
  - Beste erabakigune batzuk: 6

[a]

Azalpen honen ostean, Luix Intxauspe alkateak kanpoan geratu diren proposamenak eta kanpoan geratzearen arrazoiak azaldu ditu:



### BALORAZIO TEKNIKOAGATIK ]

- ❖ Ave Marian estanke bat egitea, ahateekin
- ❖ Kolunpio berriak Laiztiaga auzoan
- ❖ Atarrabiyo parkean haurrak modu autonomoan ibiltzeko hesidurak jartzea
- ❖ Ave maria parkea kristina enea parkearen antzera atontzea; ibilbide gehiago sortzea, zuhaitz, zuhaixka eta lore gehiago landatzea, ur putzu bat egitea

[a]



### EGIN DA / EGINO DA ]

- ❖ Parke eta pasealeku batzuen garbiketa, poda
- ❖ Ave maria sarrerako iturria konpondu
- ❖ Floridan, tren estazio ondoko parkea txukundu
- ❖ Portuko parkea berritzea
- ❖ Gazte lokalen segurtasunaren inguruan kanpaina bat egitea
- ❖ Gaztetxokoan sukaldea egokitzea, eta obrak egitea

[a]



### AURREKONTUA GAINDITU ]

- ❖ Estalpeak eta espazio itxiak, bai parkeak eta baita kirol ekipamenduak ere (12)
- ❖ Urbietako kioskoa birplanteatu

[a]



### ZEHAZTASUN FALTA ]

- ❖ Adecuación de plazas para que jueguen los niños.

#### KUDEAKETA

- ❖ Recortar en invierno las flores a ras o poner flores pequeñas en los jardines
- ❖ Ave maria berdegunean txakurrak ibiltzeko debekua jartzea eta araua betetzeko bitartekoak jartzea.
- ❖ Harrobiko lur eremua aisilaldirako berdegune bihurtzea
- ❖ Pistina irekietan dagoen berdegune handia urte guztian zehar irekia egotea.

[a]

### 3. LEHENTASUNAK

---

Proposamenen balorazioak aurkeztu ostean, bilera irekiaren atal nagusiari ekin zaio, proposamenak lehenesteari, alegia.

Proposamenak lehenesteko, bi irizpide nagusi aurkeztu dira, eta proposamen guztiak horien arabera baloratuko dira lehendabizi. Irizpideak honakoak izango dira:

- ***Aurreko urteetan proposamenik egin da eremu honetan?***
- ***Proposamen honek ingurumenari mesede egiten dio?***

Proposamen guztiak banan bana azaldu dira, eta herritar bakoitzak irizpide horien araberako puntuazio bat eman dio proposamen bakoitzari, eskala honi jarraituta:

Gutziz betetzen du: **1**  
betetzen: **-1**

Ez dakit, ez dut erantzuten: **0**

Ez du irizpidea

Bi irizpide horien ostean, bertaratutako bakoitzak 3 gomets jartzeko aukera izan du gustukoen zituen proposamenei.

Taula honek balorazio eta puntu guztiak jasotzen ditu:

PARKEAK ETA ESPAZIO PUBLIKOAK	AURREKO URT. INBERTS	INGURUMENA	PERTS.	GUZTIRA
Ping pong mahaiak jartzea herriko hainbat gunetan: Latsunbe plazan (Latsunbe berri 36 parean); Etxeberriko parkearen inguruan, Karobieta-Aristizabal arteko parkean, Karabel, Lizeaga, Portu, Florida, Martindegi, Txantxila, etab. Beharra egon daitekeen guztietan jartzea proposatzen da.	1,1,1,1,1 5	-1,0,-1,-1,-1 -4		<b>1</b>
Cambiar el suelo del parque infantil, detrás del bloque 3 de Etxe Berri	-1,1,0,0,1 1	-1,0,0,0,0 -1		<b>0</b>
Karabelgo parkearen lur guztia aldatzea, gomazko lurra eta baita egurrezkoa ere.	2	-4		<b>-2</b>
<b>Bidebietako parkean egin berri duten espazio natural bezalakoak parke gehiagotan jartzea, Ave Marian adibidez, baina baita gehiagotan ere.</b>	2	3	2	<b>6</b>
<b>Haur parkeetan txikienentzat ere jolasteko materialak jartzea, herri ezberdinetan ikusi ditut egurrezko laberintoak, ranpa txikiak...</b>	3	3	1	<b>6.5</b>
6 urtetik gorako haurrentzat parkeak; rokodromoa, sokekin eginiko jolasak (trepatzeko, ekilibrioa,...). Igerileku irekietan jartzea proposatzen da.	2	0		<b>2</b>
<b>Haur helduagoentzat (8 urtetik gorakoentzat) sokadun parkea eskalada egiteko. Haurrekin eta aurrenerabeekin zehaztea zein parke mota, non eta nolakoak nahi dituzten.</b>	4	2		<b>6</b>
<b>Reparar los parques y asignar un importe para evitar accidentes</b>	3	2	1	<b>5.5</b>
Zikuñagan, Ikastetxearen beheko aterpean pertsianak jartzea.	4	0		<b>4</b>
<b>Herriko berdegune batzuk pertsonen erabilerako soilik esleitzea</b>	5	4		<b>9</b>
<b>Adecuar el espacio de Atsegindegi (goteras, cierre de algunos lados, humanizar...)</b>	2	2	1	<b>4.5</b>
<b>Urbieta kalea eta Latsunbeberri auzoaren artea geratzen den zonaldean (merkatuaren azpian, lehen haurrentzako parkea zegoen tokian), banku gehiago eta pergola bat jartzea landare igokari batekin. Parkeetan mahaiak aterpe batekin euria egiten duenerako...(merendolak eta mahai jolasetan aritzeko)</b>	2	2	1	<b>4.5</b>
Ave Marian mahai gehiago jartzea	0	-1		<b>-1</b>

[a]

<b>Kale garbiketan inbertsio gehiago egiteko eskaerak: Latsunbe berriko soportalak, Florida ingurua, Etxeberriko espaloiak, Etxeberri 1 eta 2 portalen inguruak, Kaxkoko pareta eta pertsianak, Lizeaga auzoan (udazkenean batez ere, hosto erokertagatik), parke eta pasealekuetan, herri osoan orokorrean.</b>	2	2	1	<b>4.5</b>
<b>Poner mas baños públicos durante la temporada del txotx.</b>	3	4	1	<b>7.5</b>

<b>NERABEAK ETA GAZTERIA</b>				
Gazteentzat kultur - aisialdi ekintza gehiago. Bai urtean zehar, eta baita udan ere: irteerak, kirol jarduerak, zinea, antzerkia.	1	-1	1	<b>0.5</b>
Udan, igerileku irekietan antolatu izan diren ekintzak, maiztasun handiagoarekin antolatzea. Oso balorazio positiboa izan dute, eta nerabe-gazteentzat oso egokia da.	0	-1		<b>-1</b>
Facilitar por parte del ayuntamiento la emancipación de la juventud	-1	-2		<b>-3</b>
Viviendas provisionales para jóvenes sin recursos.	-1	-2		<b>-3</b>



Balorazio altuena jaso duten proposamenek aurrera egingo dute prozesuan (erdiak gutxi gorabehera), eta beraz, etxeetan jasoko dugun diptikoan agertuko dira. Puntuazio baxuena jaso dutenak berriz, prozesu honetatik kanpo geratuko dira.

#### 4. HURRENGO URRATSAK

---

Gometsen ondoren, saio irekiekin amaitzerakoan geratzen diren urratsak zeintzuk izango diren azaldu dira:

- **Proposamen horiekin galdetegia diseinatuko da**, lehenetsitako proposamenak kontuan hartuta.
- Galdetegiak bilduko dituen proposamenak **auzoetan aurkeztuko dira (8 saio)**, eta horretaz gain, etxeetako postontzietan banatuko da eta internetetik egiteko aukera ere egongo da.
- Hautatutakoak zeintzuk diren azaltzeko aurkezpen publiko bat antolatuko da.

#### 5. SAIOAREN BALORAZIOA

---

	BILERAREN EDUKIAK	LAN EGITEKO MODUA	BILERAKO GIROA
	XX	XXX	XXX
	X		
			